



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2022ko otsailaren 4a

14. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### E SAILA:

##### **Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Interpelazioa, uholdeek eragindako kalteak ekidite edo arintze aldera ibaiak garbitu eta mantentzeko politikei buruzkoa. Navarra Suma talde parlamentarioak aurkeztu du (3. or.).
- Interpelazioa, gutxieneko diru-sarreraren eta Errenta Bermatuaren Legearen arloko politika orokorrari buruzkoa. Mikel Buil García jaunak aurkeztu du (4. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da hobetu dezan Nafarroan minbizidun haurrek jasotzen duten zerbitzua. Osasun Batzordeak onetsia (4. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- Galdera, INTIAk Orreagan kudeatzen duen esnetarako ardi eta behien finkari buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (5. or.).
- Galdera, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiaren gobernu salak onetsitako bitartekaritza eta justizia errestitatiborako protokoloari buruzkoa. María Virginia Magdaleno Alegría andreak egin du (5. or.).
- Galdera, Caparrosen kokaturik dauden abeltegik eta biometanizazio-plantatik heldu diren minden eta digestatoen isurketaren salaketari buruzkoa. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (6. or.).
- Galdera, pandemia hasi zenez geroztik gazteen enpleguak izandako bilakaerari buruzkoa. Carlos Mena Blasco jaunak egin du (7. or.).
- Galdera, migratzaileekiko mentoretza soziala babesteko neurriei buruzkoa. María Virginia Magdaleno Alegría andreak egin du (7. or.).
- Galdera, Iruñearen eta Madrilaren arteko trenbide-ibilbideari buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (8. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernua atletismoko pista estali bat eraikitzen premiatzen duen mozioa bete ez izanari buruzkoa. Alberto Bonilla Zafra jaunak egin du (9. or.).
- Galdera, Cascanteko jarduera ekonomikoen eremua taxutzeko hirigintza-planeamenduko dokumentuak idazteko lanei buruzkoa. Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak egin du (9. or.).

- Galdera, Eliza Katolikoak immatrikulatutako ondasunen inbentario eta ohar soilei buruzkoa. Aranzazu Izurdiaga Osinaga andreak egin du (10. or.).
- Galdera, Eliza Katolikoak immatrikulatutako ondasunak berreskuratze aldera toki entitateentzako kontsulta eta aholku bulego bat sortzeari buruzkoa. Aranzazu Izurdiaga Osinaga andreak egin du (11. or.).
- Galdera, Nafarroan jokoa arautzeari buruzkoa. Aranzazu Izurdiaga Osinaga andreak egin du (11. or.).
- Galdera, Hezkuntza Departamentuko Ikuskatzaileen Kidegoan egindako izendapen bereziei buruzkoa. María Roncesvalles Solana Arana andreak egin du (12. or.).
- Galdera, Nafarroako Orkestra Sinfonikoaren abonu-kontzertuen kopurua murrizteari buruzkoa. Raquel Garbayo Berdonces andreak egin du (13. or.).
- Galdera, Kirol Merezimenduarentzako Nafarroako Urrezko Dominak eta Nafarroako Gobernuaren kirol-sariak emateari buruzkoa. Alberto Bonilla Zafra jaunak egin du (13. or.).
- Galdera, Iruña-Noain aireportuko segurtasun-sistemaren akatsei buruzkoa. Lurralde Kohesiorako Batzordean izapidetzea (14. or.).

**G SAILA:****Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Ehizaren eta arrantzaren arloko legedia aztertu eta analizatzeko ponentzia. Txostena bukatzeko epea luza-tzea (15. or.).

---

**E saila:**  
**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

## **Interpelazioa, uholdeek eragindako kalteak ekidite edo arintze aldera ibaiak garbitu eta mantentzeko politikei buruzkoa.**

### *NAVARRA SUMA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urtarrilaren 31n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Navarra Suma talde parlamentarioak aurkezturiko interpelazioa, uholdeek eragindako kalteak ekidite edo arintze aldera ibaiak garbitu eta mantentzeko politikei buruzkoa.
2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.
3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **INTERPELAZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide eta Navarra Suma (Na+) talde parlamentarioaren eledun José Javier Esparza Abaurrea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, uholdeek eragindako kalteak ekidite edo arintze aldera ibaiak garbitu eta mantentzeko politikei buruzko honako interpelazio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Azkenaldian, kalte ugari eragiten ari diren uholdeak gertatzen ari dira Nafarroan. Nafarroako Gobernua ezin da geldirik geratu hori ikusita, neurri handi batean ibai-ibilguak garbitu eta mantentzen ez direlako gertatzen baitira, toki entitateek, nekazariak eta hainbat adituk salatzen dutenez. Hortaz, Nafarroako Gobernuak hori dela-eta zer eginen duen jakin nahi dugu.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 25ean

Eleduna: José Javier Esparza Abaurrea

---

## **Interpelazioa, gutxieneko diru-sarrerren eta Errenta Bermatuaren Legearen arloko politika orokorrari buruzkoa.**

*MIKEL BUIL GARCÍA JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urtarrilaren 31n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Buil García jaunak aurkezturiko interpelazioa, gutxieneko diru-sarrerren eta Errenta Bermatuaren Legearen arloko politika orokorrari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapideztea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **INTERPELAZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari Mikel Buil García jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako interpelazio hau aurkezten du, otsailaren 10eko Osoko Bilkuran erantzun dakion:

Gutxieneko diru-sarrerren eta Errenta Bermatuaren Legearen arloko politika orokorrari buruzko interpelazioa.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 27an

Foru parlamentaria: Mikel Buil García

## **Erabakia. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da hobetu dezan Nafarroan minbizidun haurrek jasotzen duten zerbitzua.**

### *OSASUN BATZORDEAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak, 2022ko otsailaren 2an egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: "Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da hobetu dezan Nafarroan minbizidun haurrek jasotzen duten zerbitzua".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du:

1. Nafarroan legez ezarritako gaixotasun larri bat edo minbizia duen beren kargurako adingabe bat modu zuzen, jarraitu eta iraunkorrean zaintze aldera lanaldia eta soldata murrizten duten gurasoek, adoptatzaileek edo harrera-egileek pairatzen duten diru-sarrerren galera konpentsatzeko sorospena alda dezan eta, horrenbestez, Opor, lizentzia eta baimenen erregelamendua onesten duen otsailaren 9ko 11/2009 Foru Dekretua alda dezan, tarteak % 50etik % 99ra bitarte gutzetzeko.

2. Nafarroan minbizia duten neska-mutikoen aldi baterako desgaitasuna onar dezan eta Diputatuen Kongresuak 2017an onetsitako legez besteko proposamena aplikatu dezan Nafarroan –horren arabera, minbizia duten haur eta nerabeei % 33ko desgaitasuna aitortzen zaie diagnostikoa egiten den unetik beretik–, Orik 14 urtera bitarteko adingabeek eta haien familiek laguntzak eta zerbitzuak jaso ahal izan ditzaten.

3. 2. puntuan adierazitako desgaitasuna onar dezan eta onarpen hori urrutetik egin dadin, minbizia duen neska-mutikoak zentro nagusira joan behar izan gabe.

4. PADI-Haurren Hortzetako Osasun Laguntzaren Programan sar daitezten txantxarrak, lehen hortzaldiko hortz-erazketa aurreratu gabeak eta minbizia duten bigarren hortzaldiko haur nafarren hortz-protesiak".

Iruñean, 2022ko otsailaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, INTIAk Orreagan kudeatzen duen esnetarako ardi eta behien finkari buruzkoa.***MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urtarrilaren 31n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkeztutako galdera, INTIAk Orreagan kudeatzen duen esnetarako ardi eta behien finkari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Informazio-eskaera berretsi ondoren –zeina eskatutakoarekin zerikusirik ez duen informazioa emanda erantzun baita–, honako hau jakin nahi dut:

Nola funtzionatzen du eta nola kudeatzen da INTIAk Orreagan kudeatzen duen esnetarako behi eta ardien finka?

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 21ean

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

**Galdera, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiaren gobernu salak onetsitako bitartekaritza eta justizia errestitiborako protokoloari buruzkoa.***MARÍA VIRGINIA MAGDALENO ALEGRÍA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urtarrilaren 31n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Virginia Magdaleno Alegría andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiaren gobernu

salak onetsitako bitartekaritza eta justizia errestitiborako protokoloari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Virginia Magdaleno Alegría andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilari Eduardo Santos jaunari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

2021ean ikusi zen beharrezkoa dela Nafarroako Gobernuak justizia errestauratiboa bultzatzea

arloan guztietan; bereziki, Biktimaren Estatutuaren arloan.

Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuak zer balorazio egiten du Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiaren gobernu salak orain dela gutxi onetsitako bitartekaritza eta justizia errestauratiboko protokoloa dela-eta?

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 23an

Foru parlamentaria: Virginia Magdaleno Alegría

## **Galdera, Caparrosen kokaturik dauden abeltegi eta biometanizazio-plantatik heldu diren minden eta digestatoen isurketaren salaketari buruzkoa.**

### *MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urtarrilaren 31n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako galdera, Caparrosen kokaturik dauden abeltegi eta biometanizazio-plantatik heldu diren minden eta digestatoen isurketaren salaketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoko parlamentari Marisa De Simón Caballero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Parlamentu honen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordearen bilkuran ahoz erantzun dakion.

Iragan maiatzaren 5ean, Lurra talde ekologistaren ordezkari batek ekozidio salaketa bat aurkeztu zuen Nafarroako Foru Komunitateko Fiskaltzaren erregistroan.

Valle de Odieta / HTN Biogás enpresak Caparrosen duen abeltegi eta biometanizazio-plantatik

heldu diren minden eta digestatoen isurketa batez ohartarazi zion Finskaltzari salatzaileak.

Salatzaileak zioenez, isurketa horrek Aragoi eta Arga ibaien beheko tarteei erasan zien. Eremu horrek bere baitan hartzen ditu, Martzillan eta Alesbesen, Aragoi ibaiaren ibarbasoak, zeinek Natura 2000 Europako sare ekologikoko KBE-kontserbazio bereziko eremuen babes baitute.

Minda kutsatzaile horiek ustez isuri dituen enpresak –Valle de Odieta / HTN Biogás– makro-abeltegi industrial bat dauka Caparrosoko udal-mugartean, esnetarako 3.450 behi izateko baime-narekin. Minda horiek –abeltegiaren jardunak berezko dituenak– ondoko soroetara isurtzen dira azkenean, eta horrek jariatzeak eragiten ditu eremuko erreka-zuloetan (horietakoren bat, zuzenean iristen da Aragoi ibaira).

Salaketa hori ez da berria. Lehenago, otsailean, Caparrosen zer gertatzen ari zen eta zer inpunitatekin gertatzen ari zen kezkatuta, elkarte batzuk bisitan joan ziren eta dokumentatu egin zituzten eremu hartan baliatzen ari ziren jokabide kaltegarriak, minda edo digestato horien parte bat Aragoi ibaira eta haren ingurunera heltzen baita Aragoi ibaiaren erreka-zuloetan eta ebakiduretan barrena.

Isurketa horiek egiten diren eremutik gertu daude Martzillako herriak edateko ura eta zenbait kontserba-enpresak industria-ura hartzeko baliatzen dituzten akuiferoak, eta hori kaltegarria izan daiteke osasun publikoari begira.

Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak zer balorazio egiten du Lurra talde ekologistak egindako salaketa dela-eta? Zer neurri hartuko ditu halako isurketak ekiditeko?

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 24an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

## **Galdera, pandemia hasi zenez geroztik gazteen enpleguak izandako bilakaerari buruzkoa.**

*CARLOS MENA BLASCO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urtarrilaren 31n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea pandemia hasi zenez geroztik gazteen enpleguak izandako bilakaerari buruz Carlos Mena Blasco jaunak aurkeztutako galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Carlos Mena Blasco jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, lehen lehendakariorde eta Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak zer balorazio egiten du pandemia hasi zenez geroztik gazteen enpleguak izandako bilakaerari buruz?

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 27an

Foru parlamentaria: Carlos Mena Blasco

## **Galdera, migratzaileekiko mentoretza soziala babesteko neurriei buruzkoa.**

*MARÍA VIRGINIA MAGDALENO ALEGRÍA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urtarrilaren 31n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea migratzaileekiko mentoretza soziala babesteko neurriei buruz María Virginia Magdaleno Alegría andreak aurkeztutako galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Virginia Magdaleno Alegría andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilari Eduardo Santosek Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Migratzaileen eta errefuxiatuei laguntza emozionala ematea eta haien gizarteratzea aldezte, horra mentoretza sozialaren onura nagusietako bi. Mentoretzaren hartzaileak akonpainamenduari probetxua ateratzen baldi badio, boluntarioak ere beste horrenbeste lortzen du. Izan ere, gizartea-

ren ongia lortzen laguntzen du, enpatia praktikan jartzen, bere egunerokotasunarekin zerikusirik ez duten beste errealitate batzuk ezagutzen.

Nafarroako Gobernuako Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentua zer neurri ari da

abian jartzen migratzaileen mentoretza soziala babesteko?

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 27an

Foru parlamentaria: Virginia Magdaleno Alegría

---

## **Galdera, Iruñearen eta Madrilen arteko trenbide-ibilbideari buruzkoa.**

### *JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urtarrilaren 31n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Iruñearen eta Madril arteko trenbide-ibilbideari buruz Javier García Jiménez jaunak aurkeztutako galdera.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Lurralde Kohesiorako Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Lurralde Kohesiorako kontseilariak Batzordean ahoz erantzun diezaion:

Nafarroako Gobernuak zer egin du Iruña eta Madril lotzen dituen trenen eguneko frekuentzia areagotzeko?

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 25ean

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez



## **Galdera, Nafarroako Gobernua atletismoko pista estali bat eraikitzea premiatzen duen mozioa bete ez izanari buruzkoa.**

*ALBERTO BONILLA ZAFRA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urtarrilaren 31n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Bonilla Zafra jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernua atletismoko pista estali bat eraikitzea premiatzen duen mozioa bete ez izanari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Kultura eta Kiroleko Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Alberto Bonilla Zafra jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Kultura eta Kiroleko kontseilariak batzordean ahoz erantzun diezaion:

Nafarroako atletismoak Donostiara joaten jarraitu behar du pista estalian lehiatzeko, nahiz eta 25 hilabete igaro diren Gobernua pista estali bat eraikitzea premiatzen duen mozio bat onetsi zenetik Parlamentuan. Zer iritzi dio horri Kultura eta Kirol Departamentuak?

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 27an

Foru parlamentaria: Alberto Bonilla Zafra

## **Galdera, Cascanteko jarduera ekonomikoen eremua taxutzeko hirigintza-planeamenduko dokumentuak idazteko lanei buruzkoa.**

*JUAN LUIS SÁNCHEZ DE MUNIÁIN LACASIA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urtarrilaren 31n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak aurkezturiko galdera, Cascanteko jarduera ekonomikoen eremua taxutzeko hirigintza-planeamenduko dokumentuak idazteko lanei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen

Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Honako hau jakin nahi dut Nasuvinsak eta Cascanteko Udalak sinatutako akordioetatik heldu diren Cascanteko jarduera ekonomikoen eremua taxutzeko hirigintzako planeamenduko dokumentuak idazteko lanei dagokienez:

– Zertan da industrialde horren hirigintzako planeamenduaren idazketa?

– Zeri zor zaizkio atzerapena eta Cascanteko Udalarekiko komunikazio eza?

– Nasuvinsak zer data darabil gogoan proiektua izapidetzeko eta abian jartzeko?

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 21ean

Foru parlamentaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

## **Galdera, Eliza Katolikoak immatrikulatutako ondasunen inbentario eta ohar soilei buruzkoa.**

### *ARANZAZU IZURDIAGA OSINAGA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urtarrilaren 31n egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Aranzazu Izurdiaga Osinaga andreak aurkezturiko galdera, Eliza Katolikoak immatrikulatutako ondasunen inbentario eta ohar soilei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Arantxa Izurdiaga Osinaga andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak noiz argitaratuko ditu Nafarroako Gobernu Irekiaren Atarian Eliza Katolikoak Hipoteka Legearen 206. artikulua babesean immatrikulatutako ondasunen inbentarioa eta ohar soilak?

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 24an

Foru parlamentaria: Arantxa Izurdiaga Osinaga

## **Galdera, Eliza Katolikoak immatrikulatutako ondasunak berreskuratze aldera toki entitateentzako kontsulta eta aholku bulego bat sortzeari buruzkoa.**

### *ARANZAZU IZURDIAGA OSINAGA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urtarrilaren 31n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aranzazu Izurdiaga Osinaga andreak aurkezturiko galdera, Eliza Katolikoak immatrikulatutako ondasunak berreskuratze aldera toki entitateentzako kontsulta eta aholku bulego bat sortzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Arantxa Izurdiaga Osinaga andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak zer urrats egin du Hipoteka Legearen 206. artikuluan ezarritakoaren babesean Eliza Katolikoak –zeinahi ere izan den erabilitako izena– immatrikulatutako ondasunak berreskuratze aldera toki entitateentzako kontsulta eta aholku bulego bat sortzeko? Noizko aurreikusten da abian jartzea?

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 24an

Foru parlamentaria: Arantxa Izurdiaga Osinaga

## **Galdera, Nafarroan jokia arautzeari buruzkoa.**

### *ARANZAZU IZURDIAGA OSINAGA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urtarrilaren 31n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroan jokia arautzeari buruz Aranzazu Izurdiaga Osinaga andreak aurkezturiko galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Arantxa Izurdiaga Osinaga andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik Nafarroan jokia arautzeko lege- nahiz erregelamendu-ekimenik bultzatzeko? Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik Nafarroan apustu-etxeak arautzeko ponentzian onetsitako ondorioak jasoko dituen lege- nahiz erregelamendu-ekimenik bultzatzeko?

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 24an

Foru parlamentaria: Arantxa Izurdiaga Osinaga

## **Galdera, Hezkuntza Departamentuko Ikuskatzaileen Kidegoan egindako izendapen bereziei buruzkoa.**

*MARÍA RONCESVALLES SOLANA ARANA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urtarrilaren 31n egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea María Roncesvalles Solana Arana andreak aurkezturiko galdera, Hezkuntza Departamentuko Ikuskatzaileen Kidegoan egindako izendapen bereziei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Maria Roncesvalles Solana Arana andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak idatziz erantzun dezan:

Hezkuntzako zuzendari nagusi Sevillano jaunak 2022ko urtarrilaren 26ko agerraldian esan zuenez, legegintzaldi honetan, orain arte, hiru izendapen berezi egin dira Ikuskatzaileen Kidegoan. Hori dela-eta, honako galdera hauei idatziz erantzutea eskatzen dut:

– Zeintzuk dira hiru izendapen horiek?

– Noiz egin zen horietako bakoitza?

– Horietako bakoitza egin zen unean zerrendetan ba al zegoen inor? Zenbat, kasu bakoitzean?

– Zerrendetan inor baldin bazegoen, zergatik egin zioten uko? Zer justifikazio baliatu zuten kasu bakoitzean?

– Izendatutako pertsona horiek zergatik ez zeuden zerrendetan? Azken oposizioa egiteko aurkeztu al ziren?

– Zein da hiru kontratu horien iraupena?

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 27an

Foru parlamentaria: Maria Roncesvalles Solana Arana

## **Galdera, Nafarroako Orkestra Sinfonikoaren abonu-kontzertuen kopurua murrizteari buruzkoa.**

*RAQUEL GARBAYO BERDONCES ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urtarrilaren 31n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Raquel Garbayo Berdonces andreak aurkezturiko galdera, Nafarroako Orkestra Sinfonikoaren abonu-kontzertuen kopurua murrizteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Raquel Garbayo Berdonces andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuo Kultura eta Kiroleko kontseilariak idatziz erantzun diezaion:

Zergatik murriztu duzue Nafarroako Orkestra Sinfonikoaren abonu-kontzertuen kopurua?

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 27an

Foru parlamentaria: Raquel Garbayo Berdonces

## **Galdera, Kirol Merezimenduarentzako Nafarroako Urrezko Dominak eta Nafarroako Gobernuaren kirol-sariak emateari buruzkoa.**

*ALBERTO BONILLA ZAFRA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urtarrilaren 31n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Bonilla Zafra jaunak aurkezturiko galdera, Kirol Merezimenduarentzako Nafarroako Urrezko Dominak eta Nafarroako Gobernuaren kirol-sariak emateari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Alberto Bonilla Zafra jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuo Kultura eta Kiroleko kontseilariak idatziz erantzun diezaion:

Zergatik aldatu dira Kirol Merezimenduarentzako Nafarroako Urrezko Dominak eta Nafarroako Gobernuaren kirol-sariak emateko modua? Zer helbururekin egin da aldaketa? Aldaketa hori inorekin adostu al da edo inori jakinarazi al zaio?

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 27an

Foru parlamentaria: Alberto Bonilla Zafra

## **Galdera, Iruña-Noain aireportuko segurtasun-sistemaren akatsei buruzkoa.**

### *LURRALDE KOHESIORAKO BATZORDEAN IZAPIDETZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urtarrilaren 31n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

**1.** Xedatzea Iruña-Noain aireportuko segurtasun-sistemaren akatsei buruz Javier García Jiménez jaunak aurkezturiko galdera Lurralde Kohesiorako Batzordean izapidetu dadin. Galdera

2022ko urtarrilaren 25eko 7. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-22/POR-00034).

**2.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

**Ehizaren eta arrantzaren arloko legedia aztertu eta analizatzeko ponentzia.**

*TXOSTENA BUKATZEKO EPEA LUZATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urtarrilaren 31n eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik Ehizaren eta arrantzaren arloko legedia aztertu eta analizatzeko Ponentziak 2022ko urtarrilaren 20an harturiko erabakia, zeinean eskatzen baitzen txostena bukatzeko epea 2022ko ekainaren 30era arte luzatzea, honako hau ERABAKI DA:

**1.** Ponentziaren txostena bukatzeko epea 2022ko ekainaren 30era arte luzatzea. (10-20/PON-00002).

**2.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

